

## GIL 78 Caicedo-Yusoko aintzira



Arreo aintzira iparraldeko urertzeko bide zirkularretik begiratuta.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 46' 42,64 '' N

Long.: 2° 59' 28,48'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 500.716,23 m

Y: 4.736.219,33 m



### Nola iritsi

Caicedo-Yusoko aintzira —Arreo aintzira ere esaten zaio— Arabako Haranak eskualdean dago, Araba probintziaren mendebaldean, Gasteiztik 30 km-ra, gutxi gorabehera. Gesaltza Añanatik oso hurbil egon arren, aintzira Lantarón udalerrikoa da.

A-2622 eskualdeko errepidetik sartu behar da, zeinak Pobes eta Gesaltza Añana lotzen baititu. Gesaltza Añanara iritsi baino kilometro bat lehenago, ezkerretara, A-4318 errepide estua hartu behar da; Caicedo de Yusora eramaten du. Aintzira 4 bat km-ra dago.

Bada beste aukera bat: Gesaltza Añanatik oinez joatea, hegoalderantz doan asfaltatu gabeko pista batetik, gatzagak inguratuz. Bidea atsegina da, eta aldapa txikia du. Ordubete inguru behar da aintzirara heltzeko.

## Deskribapena

Caicedo de Yuso aintzira (137 ha-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta 22 m-ko sakonera maximoa) Euskal Autonomia Erkidegoko aintzira-sistema natural bakarra da; oso berezia da, jatorria (Iberiar penintsulan bi aintzira bakarrik daude gatzaga-tximinien gainean era-tuak, eta hau haietako bat da), morfologia eta uren konposizio kimikoa direla eta.

Bai aintzira, bai Gesaltza Añana —elkarrengandik 2,5 km-ra daude—, hareharri gorri, berde eta moreen gainean kokatuta daude. Arroka dolomitikoen zatiak (karniolak) eta arroka subbolkaniko ofitikoak hartzen dituzte. Arroka horiek, normalean, muino bakar-tuak eratuz azaleratzen dira.

Eremu honetan azaleratzen diren Triasikoko sedimentu asko ebaporita-masak dira; haien disoluzio- eta kolapso-prozesuekin erlazionatuta dago Arreo aintziraren eratze-prozesua. Aintzira jatorri naturalekoa da, jatorri karstikokoa, masak eta igeltsuak disolbatzeak eta kolapsatzeak eragina. Tonu askotako buztin triasikoak ikusten dira aintziraren inguruan; haien osatzen dute litologia nagusia. Haien gainean, gainazal higatu ugari daude, luba-ki-formakoak.

Caicedo de Yusoko arroak oso ibai-sare sinplea du, erreka txiki batez osatua. Errekak ur sulfatatuak (% 54), bikarbonatuak (% 39) eta kaltziko (% 71) eta magnesikoak ditu aintzirara sartu aurretik, eta sodio klorurozko osagai bat ere bai, ia hirukoiztu egiten dena aintziratik irteteen: kloruroen eta sodioaren kontzentrazio ionikoa % 15 ingururaino iris-ten da. Hala, nabarmena da lur azpiko ur gazien ekarpena kubetan.

Bi aforaleku daude (Uraren Euskal Agentziarenak dira): bat, uretan gora, eta, bestea, uretan behera. Aintzirako sarrerako eta irteerako emariak kontrolatzen dituzte. Aforale-kuetako datuek oso informazio interesgarria ematen dute betetze- eta/edo deskarga-zo-na gisa duen funtzionamenduari buruz. Orain dela gutxi arte, aintzira endorreikoa zela uste zen, baina, dirudenez, datuek adierazten dute ezen, aldi batzuetan, betetze-zona gisa funtzionatzen duela eta, beste batzuetan, berriz, deskarga-zona gisa. Izan ere, une jakin batzuetan, aintzirara sartzen diren emariak (lerro urdina) handiagoak dira irteten ari diren emariak baino (lerro gorria); beste garai batzuetan, berriz, kontrakoa gertatzen da.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*, inguratzen duen bidexkan zehar.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 116, GIL 130, GIL 142, GIL 143.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 7, GIL 79, GIL 80, GIL 57.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala	●			
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Martínez-Torres, L. M. et al. (1998): "*Batimetría y propuesta de cartografía geológica del Lago Arreo (Diapiro de Salinas de Añana, Álava)*". Cuadernos de sección. Historia 20. (1992) 123.-124. or. ISSN: 0212-6397. Eusko Ikaskuntza.
- EEE (1996): *Euskal Herriko mapa hidrogeologikoa*.
- 92/43/CEE *Direktiba*, habitatei buruzkoa.
- 160/2004 *Dekretua*, 2004ko uztailaren 27koa.
- 26/2006 *Foru Agindua*, 2006ko otsailaren 6ko ALHAO.